

JARDUTEKO PROTOKOLOA, URAREN
EUSKAL AGENTZIAREN ETA IURRETAKO
UDALAREN ARTEKOA, KANTAUARI
EKIALDEKO UHOLDE-ARRISKUA
KUDEATZEKO PLANA (2022-2027)
GARATZEKO, UHOLDE-ARRISKU
HANDIKO UAHE S017-BIZ-9-1
EREMURAKO

PROTOCOLO DE ACTUCIÓN ENTRE LA
AGENCIA VASCA DEL AGUA-URA Y
AYUNTAMIENTO DE IURRETA PARA EL
DESARROLLO DEL PLAN DE GESTIÓN
DEL RIESGO DE INUNDACIÓN DEL
CANTÁBRICO ORIENTAL (2022-2027)
PARA EL ÁREA CON RIESGO
POTENCIAL SIGNIFICATIVO DE
INUNDACIÓN (ARPSI) ES017-BIZ-9-1



Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 2a.

Vitoria-Gasteiz, a 2 de noviembre de 2023.

BILDU DIRENAK

SE REUNEN



Antonio Aiz Salazar jn., Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia, eta Iñaki Totorikaguena Sarrionandia jauna, Iurretako alkate-lehendakaria.

El Sr. D. Antonio Aiz Salazar, Director General de la Agencia Vasca del Agua y el Sr. D. Iñaki Totorikaguena Sarrionandia actuando en su calidad de Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Iurreta.

ESKU HARTZEN DUTE

INTERVIENEN

Lehenengoak, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia delako, eta Estatutuetako 7.2.g) artikulua ematen dion eskuduntzari jarraikiz.

El primero de ellos en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de los Estatutos.

Bigarrenak, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21. artikulua udala ordezkatzeko ematen dion lege-gaitasuna erabiliz.

Bi esku-hartzaileek JARDUTEKO PROTOKOLO hau sinatzeko lege-gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta horretarako, hau

El segundo, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente PROTOCOLO DE ACTUACION, y a tal efecto

ADIERAZTEN DUTE:

AURRENEKOA.- Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuko 10. artikuluen 11. eta 33. apartatuen arabera, autonomia-erkidegoari dagokio, bere lurralde-eremuaren barruan, ur-aprobetxamenduen gaineko eskumen eskusiboa, ibaiek ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan egiten badute; era berean, obra publikoen gaineko eskumena ere EAERI dagokio, baldin eta obrak horiek ez badira estatutaren interes orokorrekoak jotzen legez, edo beste autonomia-erkidego batzuetan eragiten ez badute.

Uztailaren 12ko 297/1994 Dekretuari jarraituz —haren bidez onartu zen. Transferentzien Bitariko Batzordearen erabakia, estatuko administrazioak baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen arloko eginkizunak eta zerbitzuak EAERI eskualdatzekoa—, autonomia-erkidegoari eskualdatu zitzaizkion, beste batzuen artean, toki-korporazioei laguntza emateko

EXPONEN

PRIMERO.- Que, conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurren íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés general del Estado o cuya realización no afecte a otras Comunidades Autónomas.

Por Decreto 297/1994, de 12 de julio, por el que se aprobó el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias sobre traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de recursos y aprovechamientos hidráulicos, se transfirieron las funciones y medios correspondientes, entre otros, al otorgamiento de auxilios a corporaciones

eginkizunak eta bitartekoak, autonomia-erkidegoaren lurralde-eremuan egitekoak diren obra hidraulikoak gauzatze aldera, lan horiek EAEren interesekoak diren heinean, beste autonomia-erkidego bati eragiten ez dioten heinean eta legez estatuaren interes orokorrekoat jotzen ez diren heinean.

BIGARRENA.- Ekainaren 26ko 1/2006 Legearen bidez, Uraren Euskal Agentzia sortu zen, ingurumenaren alorrean eskumena duen sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa; horren xedea da uraren politika gauzatzea EAEn, eta, beste eginkizun batzuen artean, estatuko administrazioak transferitutako, eskuordetutako edo agindutako eginkizunak gauzatzea dagokio.

HIRUGARRENA.- Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeko 17.8) artikulua udalei ematen dizkien eskumenekin eta, besteak beste, ingurumenaren antolamendu osagarriari, sustapenari, kudeaketari, defentsari eta babesari buruzkoekin bat etorritik, lurretako Udalak interes publikokotzat jotzen du hitzarmen hau sinatzea, gaur egun bere lurraldean dagoen uholde-arriskua murrizteko eta, horrela, auzokideen eta, oro har, bisitatzen duten herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.

LAUGARRENA.- Orain dela gutxi onartu da Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (UAKP),

locales para la ejecución de obras hidráulicas que se realicen en el territorio de la Comunidad Autónoma, cuando tales actuaciones sean de su interés, su realización no afecte a otra Comunidad Autónoma y no tengan la calificación legal de interés general del Estado.

SEGUNDO.- Que por Ley 1/2006, de 26 de junio, se creó la Agencia Vasca del Agua, como ente público de Derecho privado adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente, cuyo objeto es llevar a cabo la política del agua en Euskadi y al que le corresponde, entre otras funciones, el ejercicio de aquellas transferidas, delegadas o encomendadas por la Administración estatal.

TERCERO.- Que de conformidad con las competencias que el artículo 17.8) de la Ley 2/2016 de 7 de abril de Instituciones Locales otorga a los Ayuntamientos y entre otras las referentes a la ordenación complementaria, promoción, gestión, defensa y protección del medio ambiente, el Ayuntamiento de Lurreta considera de interés público suscribir el presente convenio en aras a reducir el riesgo de inundabilidad que actualmente se da en su territorio, contribuyendo con ello a una mejora de la calidad de vida de su vecindario y de la población en general, que visita el mismo.

CUARTO.- Recientemente se ha aprobado el Plan de Gestión de Riesgo de Inundación

ES017-BIZ-9-1 Uholde Arrisku Handiko Eremua (UAHE) jasotzen duena. Uholdeak behin eta berriz gertatzen dira, eta larriki eragiten diote Iurretako hiri-bilbeari, ibilguaren sekzioak duen ahalmena gainditzeko delako uraldi-emariak eraginda, eta ur-geruzaren gorakadak daudelako, sekzioa estutzen delako eta ibilguan oztupoak daudelako, buxadura-efektu esanguratsua eragiten dutenak.

 Horregatik, Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak (UAKP) (2022-2027 zikloa) uholdeen aurkako zenbait prebentzio-neurri aurreikusten ditu, gaur egun Iurretan dagoen arriskua gutxitzeko. Horrela, gainera, ezkerreko ibaiertzean, Iurretako udal-mugarteko hiri-eremuetan ere, gutxitu egingo litzateke arriskua.

 Adierazitako guztiagatik, jarduteko protokolo hau sinatzen dute Uraren Euskal Agentziak eta Iurretako Udalak. Hona hemen protokoloaren klausulak:

(PGRI) que recoge el Área con Riesgo Potencial Significativo de Inundación (ARPSI) ES017-BIZ-9-1 presenta inundaciones recurrentes que afectan gravemente a la trama urbana de Iurreta, motivadas por la superación de la capacidad de la sección del cauce por el caudal de avenida, así como por la existencia de sobreelevaciones de la lámina de agua motivadas por estrechamientos de la sección y por obstáculos en el cauce que generan un efecto de obstrucción significativo.

Por esa razón, el Plan de Gestión del Riesgo de Inundación (PGRI) de la demarcación hidrográfica del Cantábrico Oriental (ciclo 2022-2027) prevé una serie de medidas de prevención frente a inundaciones destinadas a aminorar el riesgo hoy existente en Iurreta, y también lograría una reducción en la margen izquierda, en ámbitos urbanos del término municipal de Iurreta.

Que, por todo lo expuesto, la Agencia Vasca del Agua, y el Ayuntamiento de Iurreta proceden a la formalización del presente Protocolo de Actuación, con arreglo a las siguientes

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

**AURRENEKOA.- PROTOKOLOAREN
HELBURUA**

lurretako Udala eta Uraren Euskal Agentzia lankidetzan aritzeko baldintzak ezartzea da protokolo honen helburua, Kantauri Ekialdeko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean (2022-2027) lurretarako, Ibaizabal ibaiarentzat ES017-BIZ-9-1 UAHerako jasotako neurriak koordinatu, ezarri eta gauzatu ditzaten. Baldintza hauek ERANSKINEAN jasotzen dira

**BIGARRENA.- PROTOKOLOAREN
HELBURU DIREN JARDUERAK.**

lurretako udal-mugartean Ibaizabal ibaiaren uholdeen kontra babeseko proiektuak idazteko koordinaziorako egingo dira protokolo honen helburu diren jarduketak, proiektu eta helburu hauen arabera:

a) Luzetarako babes-bide bana eskuineko ibaiertzean, Arandiako zubitik ibaian gora, dagoen bidegorriaren ondoan eta Frai Juan de Zumarraga/Maspe kaleko zubiaren eta Francisco Ibarra kaleko zubiaren artean.

b) Frai Juan de Zumarraga/Maspe kaleko zubiaren azpiko presa txikia kentzea.

PRIMERA.- OBJETO DEL PROTOCOLO

Es objeto del presente protocolo establecer las condiciones en que el Ayuntamiento de Lurreta y la Agencia Vasca del Agua vayan a colaborar en la coordinacion, implementación y desarrollo de las medidas contempladas en el Plan de Gestión del Riesgo de Inundación del Cantábrico Oriental (2022-2027) para el ARPSI ES017-BIZ-9-1 en Lurreta del río Ibaizabal y que se recogen en el ANEXO.

SEGUNDA.- ACTUACIONES OBJETO DEL PROTOCOLO .

Las actuaciones objeto del presente protocolo consisten en la coordinacion para la redacción de los proyectos de defensa contra inundaciones del río Ibaizabal en el término municipal de Lurreta, de acuerdo a los siguientes proyectos y objetivos:

a) Sendas defensas longitudinales en la margen derecha, aguas arriba del puente de Arandia junto al bidegorri existente y entre el puente de la calle Fray Juan de Zumarraga/Maspe y el de la calle Francisco Ibarra.

b) Eliminación del azud bajo el puente de la calle Fray Juan de Zumarraga/Maspe.

c) Paduretako ibarraren eskuineko ibaiertzeko jarduketak: urak husteko ahalmena handitzea, ijezteko ahalmen naturala sustatuz eta hiri-sarean integratuz. Horretarako, ibai-parke bat sortuko da, 15 metro zabaleko mozketa lehor batekin eta 2H:1V ezpondekin, Frai Juan de Zumarraga/Maspe kaleko zubitik ibaian behera hasi eta BI-623 errepideko zubitik ibaian gora berriz ere ibilgu nagusiari lotzen zaiona. Horrela, aldatu gabe eta ondo mantendu ahal izango da eskuineko ibaiertzeko erriberako landaredia.

c) Actuaciones en la margen derecha en el tramo de la vega de Padureta: ampliación de la capacidad de desagüe fomentando la capacidad natural de laminación y la integración en el entramado urbano mediante la creación de un parque fluvial basado en una corta seca de 15 m de ancho y taludes 2H:1V que parte de aguas abajo del puente de la calle Fray Juan de Zumarraga/Maspe y se une de nuevo al cauce principal inmediatamente aguas arriba del puente de la BI-623. Esto permite mantener inalterada la vegetación de ribera en buen estado de conservación de la margen derecha.

HIRUGARRENA.- Uraren Euskal Agentziaren KONPROMISOAK

Uraren Euskal Agentziak jarduketa hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

- a) Bigarren klausulako a) eta b) apartatuetan adierazitako azterlanak eta proiektuak egitea.
- b) Bigarren klausulako a), b) eta c) eremuetan aurreikusitako UAKPko neurri guztien analisi hidrauliko bakarra egitea.
- c) Proiektu horien idazketa koordinatzea Paduretako ibarreko zatiaren Eskuineko Ibaiertzeko Jarduketa eta Urbanizazio

TERCERA.- COMPROMISOS DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA

La Agencia Vasca del Agua se compromete a realizar las siguientes actuaciones :

- a) Desarrollar los estudios y proyectos señalados en los apartados a) y b) de la cláusula segunda.
- b) Realizar un análisis hidráulico único de la totalidad de las medidas del PGRI contempladas en el ámbito a), b) y c) de la cláusula segunda.
- c) Coordinar la redacción de estos proyectos con el de Actuaciones y de urbanización en la Margen Derecha en el

Proiektuarekin (udalak egingo du proiektu hori).

Tramo de la Vega de Padureta que llevará a cabo el Ayuntamiento.

LAUGARRENA.- IURRETAKO UDALAREN KONPROMISOAK.

CUARTA.- COMPROMISOS DEL AYUNTAMIENTO DE IURRETA.

Iurretako Udalak jarduketa hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

El Ayuntamiento de Iurreta se compromete a realizar las siguientes actuaciones:

a) Paduretako ibarraren eskuineko ibaiertzeko jarduketak egiteko proiektua idaztea: urak husteko ahalmena handitzea, ijazteko ahalmen naturala sustatuz eta hiri-sarean integratuz. Horretarako, ibai-parke bat sortuko da, 15 metro zabaleko mozketa lehor batekin eta 2H:1V ezpondekin, Frai Juan de Zumarraga/Maspe kaleko zubitik ibaian behera hasi eta BI-623 errepideko zubiatik ibaian gora berriz ere ibilgu nagusiari lotzen zaiona. Horrela, aldatu gabe eta ondo mantendu ahal izango da eskuineko ibaiertzeko erriberako landaredia, Uraren Euskal Agentziaren laguntzarekin.

a) Elaborar la redacción del proyecto para las actuaciones en la margen derecha en el tramo de la vega de Padureta: ampliación de la capacidad de desagüe fomentando la capacidad natural de laminación y la integración en el entramado urbano mediante la creación de un parque fluvial basado en una corta seca de 15 m de ancho y taludes 2H:1V que parte de aguas abajo del puente de la calle Fray Juan de Zumarraga/Maspe y se une de nuevo al cauce principal inmediatamente aguas arriba del puente de la BI-623. Esto permite mantener inalterada la vegetación de ribera en buen estado de conservación de la margen derecha en colaboración con la Agencia Vasca del Agua.

BOSGARRENA.- BI ALDERDIEN KONPROMISOAK.

QUINTA.- COMPROMISOS DE LA AMBAS PARTES.

Protokolo honen helburu diren eraikuntza-proiektu guztiak egin ondoren hitzarmen bat sinatzeko konpromisoa hartzen dute bi alderdiek. Uholdeetatik babesteko egin beharreko obrak finantzatzea eta egitea izango da hitzarmen horren helburua.

Una vez realizados todos los proyectos constructivos objeto del presente protocolo, ambas partes se compromete a suscribir un convenio para la financiación y realización de las correspondientes obras de defensa frente a inundaciones.

SEIGARRENA.-**JARDUKETEN****JARRAIPENA EGITEKO BATZORDEA.**

1.- Jarduteko protokolo honen Jarraipen Batzordea eratuko da. Lau batzordekide izango ditu: Uraren Euskal Agentziako bi eta Iurretako Udaleko beste bi. Protokolo hau sinatzen duten aldeek izendatuko dituzte, hurrenez hurren, eginkizun hauek betetzeko:

a) Jarraipena egitea lankidetzaren protokolo honetan aurreikusitako jarduerak zuzen betetzeko, eta irizpideak eta bitartekoak ezartzea alderdiek elkarri informazioa eman diezaioten eta dagozkien konpromisoak egoki bete ditzaten.

b) Kasu bakoitzean eskatzen diren izapideak bizkor egitea oztopatzen duten trabak kentzeko erraztasunak ematea.

c) Lankidetzaren hitzarmen honen helburu diren jarduketak beteko direla bermatzeko behar diren neurri zehatzak jakinaraztea eta proposatzea.

d) Lankidetzaren protokolo honek sortzen dituen interpretazio- eta betearazpen-arazoei konponbidea ematea.

2.- Protokoloa indarrean dagoen bitartean eta aldeetako edozeinek proposatuta, jarduketak

SEXTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DE LAS ACTUACIONES.

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente protocolo de actuación compuesta por cuatro representantes, dos de la Agencia Vasca del Agua y otros dos del Ayuntamiento de Iurreta, que se designarán, respectivamente, por las partes firmantes del presente protocolo, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente protocolo de colaboración, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

c) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio de colaboración.

d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el presente protocolo de colaboración.

2.- Durante la vigencia del protocolo y a propuesta de cualquiera de las partes, la

ondo joateko behar den adina bider elkartuko da batzordea. Lehendakaritza eta idazkaritza txandaka beteko dituzte, batzordeak berak espresuki bestelakorik adosten ez badu. Bilkura egiteko, kide guztiek bertan egon beharko dute eta erabakiak ere aho batez hartu beharko dira.

comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones, siendo rotatorias la presidencia y la secretaria de la misma, salvo acuerdo distinto expreso de la propia Comisión. Los quórum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3.- Protokoloak Jarraipen Batzordearentzat espresuki jasotzen ez dituen gaitan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko atariko tituluaren II. kapituluko 3. atalean arautzen den kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

3.- En lo no previsto expresamente para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado Sección 3ª del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

ZAZPIGARRENA.- - HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA INTERPRETAZIOA.

SÉPTIMA.- RÉGIMEN E INTERPRETACIÓN DEL PROTOCOLO.

1.- Protokolo hau administratiboa da eta, interpretatu eta garatzeko, administrazio publikoen artean jarduteko protokoloak aplikatzen zaien ordenamendu juridiko administratiboa bete beharko da.

1.- El presente protocolo es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los protocolos de actuación entre administraciones públicas.

2.- Protokolo honek edo berau betearazteak sortzen dituen interpretazio-arazoak Jarraipen Batzordeak konponduko ditu aurreko klausulan esandakoari jarraituz eta, hala ezin baliteke, aipatutako urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoa bete beharko da.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente protocolo o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en la citada Ley 40/2015, de 1 de octubre.

ZORTZIGARRENA.- - PROTOKOLOAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.

OCTAVA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL PROTOCOLO .

1.- Protokoloak ez dakar esku hartzen duten alderdiek beren eskumenei uko egitea ezta horiek aldatzea ere, eta protokoloa betez hartzen dituzten konpromisoei lotutako erantzukizunak bakarrik hartzen dituzte beren gain.

2.- Protokolo honek sinatzen denetik aurrera izango ditu ondorioak eta ordutik aurrera protokoloaren xede den interes publikoa mantentzen den bitartean iraungo du

BEDERATZIGARRENA.- - PROTOKOLOA AZKENTZEA.

1.- Aurreko klausulan aipatutako iraunaldia bukatu delako edo alderdiek suntsiarazi dutelako azkenduko da protokoloa.

2.- Alderdietako batek ez baditu betetzen bere gain hartutako konpromisoak, besteak eskubidea izango du bete ditzala eskatzeko edo protokoloa azkendu dadila eskatzeko. Protokoloa suntsiarazten bada, alderdiek zehaztuko dituzte egiten ari diren obrak bukatzeko eta ordaintzeko baldintzak.

1.- El protocolo no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El protocolo surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará mientras se mantenga el interés público que constituye su objeto.

NOVENA.- EXTINCIÓN DEL PROTOCOLO .

1.-. El protocolo se extinguirá o bien por la desaparición del interés público referido en la cláusula anterior, o por resolución.


2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su cumplimiento, o para solicitar la resolución del protocolo. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las obras que se hallen en ejecución.

Eta ezarritakoa betez eta ezarritako horrekin ados daudenez, bildu direnek jarduteko protokolo honen bi ale sinatzen dituzte, goiburuan adierazitako leku eta egunean.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por duplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.


**URAREN EUSKAL AGENTZIAREN
ZUZENDARI NAGUSIA / EL DIRECTOR
GENERAL DE LA AGENCIA VASCA DEL**

AGUA



ANTONIO AIZ SALAZAR

**IURRETAKO ALKATE-UDALBURUA / EL
ALCALDE-PRESIDENTE DEL
AYUNTAMIENTO DE IURRETA**



IÑAKI TOTORIKAGUENA SARRIONANDIA